

KONTSULTA PUBLIKOA, HEZKUNTZAKO KONTSEILARIAREN FORU AGINDU BATEN PROIEKTUA PRESTATU AURREKOA. FORU AGINDU HORREN BIDEZ ARAUTUKO DIRA NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAREN MENPEKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO ZUZENDARIEN HAUTAKETA, EBALUAZIOA ETA IZENDAPENA BERRITZEA.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, foru lege baten aurreproiektua edo erregelamendu baten proiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat egin behar da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen herritarrek eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin zein arazo konpondu nahi diren.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Bestalde, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 21. artikuluan ezartzen duenez, Nafarroako administrazio publikoek argitara eman behar dituzte kontsulta publikoak, foru legearen aurreproiektuak eta erregelamenduen proiektuak egin aurretik planteatutakoak. Aurreikuspen horiek betez, herritarrek, erakundeek eta elkarteek, egoki iritziz gero, igor ditzakete planteatutako arau-proposamenaren gainean dituzten ekarpenak. Ekarpenak aurkezteko epea 15 egun baliiodunekoa da, argitaratu eta biharamunetik aitzina.

a) Konpondu nahi diren arazoak

Gaur egun, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoetako zuzendarien hautaketa, ebaluazioa eta izendapena berritzea Hezkuntzako kontseilariaren otsailaren 2ko 7/2017 Foru Aginduak arautzen du.

Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duenak, zuzendaria hautatzeko eta izendatzeko prozesuen erregulazioa aldatzen du, eta xedatzen du hezkuntza-administrazioei dagokielako prozesuak deitzea eta garatzea. Aldaketa horren ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Departamentuak arau berri bat egin beharra du, ikastetxe publikoetako zuzendarien hautaketa eta izendapena oinarrizko araudira egokitzeko.

b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.

Ikastetxeetako zuzendaritzetan profil egokiak izatea, Nafarroako hezkuntza-sistemaren eskaerei erantzuteko, bai eta hezkuntza-komunitatearen eta hezkuntza-administrazioaren parte-hartzea ahalbidetuko duen prozedura bat izatea ere, berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioak bermatuta.

c) Arauaren helburuak.

Onetsi nahi den arauaren helburua da Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatzeko, ebaluatzeko eta haien izendapena berritzeko arauak ematea.

Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Administrazioaren mendeko ikastetxe publikoetan aplikatuko da, betiere Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 3.2 artikuluan ezarritako ikaskuntzak (unibertsitatekoak salbu) ematen badituzte.

Foru agindu hau ez da aplikatuko Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuetan eta erreferentzia nazionaleko Lanbide Heziketako ikastetxeetan, beren berariazko araudiari jarraituko baitiote.

d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duenak, gai hori arautzen du IV. kapituluan, ikastetxe publikoen zuzendaritzari buruzkoan, zehazki 131. artikulutik 139.era bitartekotan.

Foru agindu berriarekin bat etorritz, argitara emanen dira Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako urteko postu hutsak jasotzen dituzten ebazpenak, eta merezimendu-lehiaketa baterako deialdia egingen da, postu huts horiek dituzten ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko.